

Lan-koadernoa
Hirugarren zikloa

Zure bizitzako lasterketa

Sibila Vigna



Intermón Oxfam

Lan-koadernoa
Hirugarren zikloa

Zure bizitzako lasterketa



Intermón Oxfam

Nazio Batuek Milurtekoaren Agiria sinatu zuten 2000. urtean, non hitz eman zuten Milurteko 8 Garapen-Helburuak (ODM) beteko zituztela, 2015erako muturreko pobrezia erdira jaisteko lehen urrats gisara.

Estatuei beren hitza bete dezaten exijitzeko, GKE-en Koordinakunde estataleko 400 erakunde baino gehiago —tartean Intermon— Zero Pobrezia izeneko kanpainari atxiki gatzaizkio.

Zure bizitzako lasterketa

Hirugarren zikloa

Lan-koadernoak ikasleentzat

Sortaren zuzendaria: Raquel León

Autoretzaren koordinazioa: Gemma Bello eta Montse Riera

Akolkularitza-batzordea: M. Àngeles Alié, Carme Batet, Mireia Claverol, Núria Ensesa, Marga Florensa, Israel García, Joan Pere Guzmán, Laura Martí, M. Jesús del Olmo, José Palos, Desiderio de Paz, Ferran Polo, Patricia Quijano, Maria Rico, Teresa Riera, M. Lluïsa Ruiz

Itzulpena: Jexuxmari Zalakain

Ekoizpenaren koordinatzailea: Elisa Sarsanedas

Azaleko eta barruko diseinua: Estudi Lluís Torres

1. argitaraldia: 2006ko uztaila

© Autoretza: Silvia Vigna

© Ilustrazioak: Àngel Sauret

© Intermón Oxfam

Roger de Llúria, 15. 08010 Barcelona

Tel. 93 482 07 00 . Faxe: 93 482 07 07

info@IntermonOxgam.org

ISBN:



Aurkibidea

1. Lagunak egiten	4
2. Bakoitza bere parearekin	6
3. Jatorrizko herria	8
4. Aukeratu zure pertsonaia!	10
5. Zure bizitzako lasterketa	12
6. Jolasetik harago...	14
7. Nomina Tusu-ren bizimodua	16
8. Nire iritziz	17
9. Joan gaitezen erroetara	18
10. Zero pobrezia gaurdanik!	20
Eranskina	21

1 Lagunak egiten

Egun berezia da gaur. Lasterketa garrantzitsua prestatzen hasi da. Bertan parte hartzera gonbidatzen zaitugu, Maria, Eva, Oautara eta Billekin batera. Ez hutsik egin!



María, Mexikokoa

Egun on. Maria naiz, 16 urte ditut eta indigena naiz, tzotzil etniakoa. Bizitza osoan aita, ama eta nire neba-arreba txikiekin bizi izan naiz, komunitatean. Familia nekazaritzatik bizi da, baina gero eta arazo handiagoak dauzkagu ereiten dugun artoa saldu ahal izateko. Komunitateko jendeak dio hori gertatzen dela Ameriketako Estatu Batuetako artoa gurea baino merkeagoa delako. Ni ez naiz orain arte inoiz nire eskualdetik irten, baina neure bizitza aldatzeko zorian dago orain... Eskola utzi eta lanean jarriko naiz hiriburuan. Horrela dirua bidali ahal izango diot familiari. Oso urrun dago, eta diotenez oso hiri handia da, baina, oso neska kementsua naiz. Lagunduko al nauzu?

Oautara, Burkina Fasokoa

Zer moduz? Oautara naiz, eta 42 urte ditut. Familia eta neu arroza haztetik bizi gara: ia egun osoa arroz-alorretan ematen dūt. Sanu nire emaztea da. Hark laguntzen dit alorretan, etxeko lanak ere egiten ditu, seme-alabak zaindu eta, gainera, azokara joan ohi da. Arroz gehiena bitartekariei saltzen diegun arren, Sanuk beti gordetzen du zerbait zuzenean saltzeko. Ez dakit nola ateratzen duen denbora dena egiteko... Orain oso pozik gaude, geure bi semeak eta alaba txikia eskolan hasi direlako. Lan asko egiten dugu hirurek ikas dezaten. Lagunduko al didazu?



Eva, Euskal Herrikoa

Kaixo, Eva naiz, 32 urte ditut eta bi haur ederren ama naiz. Mutikoak 9 urte ditu, eta neskatoak 6. Amak laguntzen dit haiek zaintzen, gugandik hurbil bizi baita. Eskolara eramaten ditu egunero, eta jaten ematen die. Nik auto-lantegi batean egiten dut lan, motorentzako piezak muntatzen. Egia esan, oso urrutitik ikusten ditut autoak. Ez dakit inoiz erosi ahal izango dudan bat. Orain beste lan baten bila nabil, hobeto ordaindua dena. Lagunduko al didazu?




Bill, Ameriketako Estatu Batuetakoa

Bill naiz eta 50 urte dauzkat. Alorrak dira nire negozioa. Familiarengandik hartu nuen kotoi-ustiapena eta kapital oparoa. Emaztea Jesika da, eta politikara emana bizi da. Bi seme-alaba ditut unibertsitatean, mutila eta neska. Oso harro nago haietaz, baina, egia esateko, ez dut asko ikusten nire familia, beti lanean bainabil. Konpetentzia eta izurriteek ez dute atsedenik hartzen. Kotoia oso ondo saltzen da orain.., baina lanbide honetan jardun nahi izanez gero, ezin lotan geratu! Erakutsiko al dizut nire negozioa?

2 Bakoitza bere parearekin




Lasterketan parte hartu ahal izateko, kontzeptu garrantzitsu batzuk ezagutu beharra daukazu.



- Nekazaritzarako diru-laguntzak
- Gizarte-segurantza
- Oinarrizko premiak
- Lan-eskubideak
- Langabezia
- Kanpo-zorra
- Giza garapenaren indizea
- Bizi-esperantza jaiotzean
- Bazterketa
- Haur-hilkortasuna
- Merkatua
- Barne-ekoizkin gordina (BEG) per capita

Lot ezazu kontzeptu bakoitza dagokion definizioarekin



Desenplegu-egoera edo lanaren galera. Herrialde aberatsetan gizarte-segurantzak emandako laguntza egoten da.

Langile guztiek dituzten eskubideak.

Pertsonen bizi-kalitatea neurtzen duen zenbakia herri bakoitzean, hezkuntza, osasuna eta BEG kontuan hartuz.

Herri batek urtean ekoizten duen ondasuna, zati populazioaren zenbatekoa.

Gobernuaren erakundea, jendearen premia ekonomiko eta osasunari dagozkion batzuk babesten dituena.

Herrialde aberatsetako nekazariek hartzen duten diru-laguntza, merkatuan lehiatu ahal izateko eta produktuak prezio hobean saltzeko.

Jaiotzen diren 1.000 haurretatik hiltzen diren haurrak.

Bizitza duina izateko ezinbesteko gutxieneak (elikadura, ur edangarria, osasuna, etxebizitza, hezkuntza, etab.).

Herri batzuek beste batzuei edo nazioarteko bankuei zor dien dirua.

Pertsona batek bizi ahal dituen urteak bere herriko bizi-baldintzak kontuan harturik (mediku-sorospena, elikadura, etab.).

Tokian tokiko edo nazioarteko produktuen salerosketa.

Pertsona bat gutxiesteko jarduna, haren erlijio, sexu, arraza, larru-kolore eta abarreatatik.

3 Jatorrizko herria

Hemen duzu goiko lagunen (Bill, Luzia, Oautara eta Mariaren) herriei buruzko informazioa. Irakur eta aldera itzazu datuak:




Ameriketako Estatu Batuak

Populazioa:
296,6 milioi biztanle

Azalera:
9.158.960 km²

Hizkuntzak:
ingeleza, gaztelania eta indioen
beste hizkuntza batzuk (komantxea
eta txerokea, besteak beste).



Burkina Faso

Populazioa:
12,4 milioi biztanle

Azalera:
276.000 km²

Hizkuntzak:
frantsesa eta berezko 71 hizkuntza
(mossia, boboa, bissa eta gurma,
besteak beste)



Euskal Herria

Populazioa:
2.868.301 biztanle

Azalera:
20.864 km²

Hizkuntzak:
euskara, gaztelania eta frantsesa



Mexiko

Populazioa: 104,3 milioi
biztanle

Azalera:
1.908.609 km²

Hizkuntzak:
gaztelania eta jatorrizko 200
hizkuntza baino gehiago (tzotzila,
tzeltala, náhuatla, mixtekoa,
purépetxa, zapotekoa eta beste).

Zein da herririk handiena?

Zein da herririk populatuena, azaleraren arabera?

Ordena itzazu lau herriak, aberastasunaren arabera

Zein herritan dute herritarrek bizi-kalitaterik onena? Eta txarrenea?

	100 biztanletatik ur edangarria dutenak	100.000 biztanletatik dauden medikuak	jaiotako 1.000 umetatik, hildakoak
Ameriketako Estatu Batuak	100	549	7
Euskal Herria	100	320	4
Mexiko	91	86	23
Burkina Faso	51	31	107

	100 pertsona nagusitatik, idazten eta irakurtzen dakitenak	100 haurretatik, lehen mailako hezkuntzan dabiltzanak	100 gaztetatik, bigarren mailako hezkuntzan dabiltzanak	100 gaztetatik, unibertsitatean dabiltzanak
Ameriketako Estatu Batuak	Ez dago daturik	92	88	77
Euskal Herria	98	100	96	56
Mexiko	91	99	63	18
Burkina Faso	13	36	9	1

	Sailkapena giza garapenaren indizearen arabera	Bizi-esperantza jaiotzean (urtetan)	BEG per capita (eurotan)
Ameriketako Estatu Batuak	10	77	31.870
Euskal Herria	21	79	18.998
Mexiko	53	75	7.778
Burkina Faso	175	47	996

Zein herritan bizi da jendea urte gehien? Zeinetan gutxien?
 Zein herritan da zailena ur edangarria lortzea?
 Zein herritan da errazena estudiatzea? Zeinetan da zailena?

4 Aukeratu zure pertsonaia!

Lasterketa-unea iritsi da! Erronka helmugara iristea da. Horretarako, bidean ezarritako oztopoak saihestu beharko dituzu, aukerak baliatu eta ahalik eta puntu-kopuru handiena eskuratu.

Hasi aurretik, partaide bakoitzak pertsonaia bat aukeratuko du. Zozketa dezakezue, edo ados jarri.

Jolasteko behar dena:

- lau jokalaria
- dado bat
- joko-aula bat
- lau pertsonaien jolas-koadernoak (ikus koadernoaren eranskina)
- lau fitxa, pertsonaiei dagozkienak



Joko-arauak

- Lasterketa berezia da hau. Kontua ez da helmugara lehena iristea, ahalik eta puntu gehien eskuratzea baizik.
- Erregistro-orria eduki behar da, jokalaria bakoitzak batzen dituen puntuak gehitzeko edo kentzeko. Hasi aurretik, pertsonaia bakoitzaren irteera-puntuak idatziko dira (ikus koadernoak eranskinean).
- Jokalari guztiak irteera-puntuan paratuko dira. Jokoa hasi aurretik, dadoa bota dezakezue, zein hasiko den erabakitzeko.
- Jokalari bakoitzak txandaka botako du dadoa, eta lortutako zenbakiak adierazten duen beste lauki aurreratuko ditu.
- Adi! Atsedeen-tokia! "Geralekua" dioen laukian jausten bazarete, bakoitzari dagokion pertsonaiaren koadernoak kontsultatu behar da (eranskina), ozen irakurri geralekuari dagokion edukia eta, kasuan kasuko, puntuak gehitu ala kendu. Jokalari bakoitzaren puntuak erregistro-orrian idatziko dira.
- Azken jokalaria helmugara iristean amaituko da jokoa.


Zorte on!




Zure bizitzako lasterketa



Zure jolas-fitxa propioa egin dezakezu,
dagokizun pertsonaia marraztuz ala
fotokopiatuz





6 Jolasetik harago...



Jolasean bezala, bizitzan, pertsona guztiek ez dauzkate aukera berberak. Jolastu ondoren, pentsatu eta emaitzak ateratzeko txanda da.

Beha itzazue ondoko taulak, eta seinalatu zuen iritziz zuzenak diren erantzunak. Erantzun aurretik, irakur ezazue berriro pertsonaiaren koadernoak. Ondoren, erantzun ezazue ondoko orriko galderak.

O



B



Haren seme-alabak ikas dezakete	arazorik gabe O B	arazo batzuekin O B	denek ezin dute O B
Familiako gastuak ordaintzeko adina irabazten du	behar duena baino gehiago O B	behar duena O B	behar duena baino gutxiago O B
Nekazaritzarako laguntzak ematen dizkio Gobernuak	behar duena baino gehiago O B	doi-doi O B	ezin du egin O B
Politikariek haren jarduera diruz laguntzea lor dezakete	botere handia du hori egiteko O B	edozeinek bezala O B	ez du botererik hori egiteko O B
Teknologia darabil bere lanean	nahikoa baino gehiago O B	nahikoa O B	gutxiegi edo bat ere ez O B
Bere herriak baditu bitartekoak pertsona guztien bizimodu duina bermatzeko	behar direnak baino gehiago O B	behar direnak O B	behar direnak baino gutxiago O B



Zein ezberdintasun topatzen dituzu 1. koadroan?

Eta 2. koadroan?

Zein ezberdintasun daude Oautara, Eva eta Mariaren egoeren artean?

Zure ustez, zergatik gertatzen dira ezberdintasun horiek?

Zer irizten diozu egoera horri?



Amak edo bere seme/alabek nahi dutena ikas dezakete	arazorik gabe M E	mugatuta M E	arazo askorekin M E
Familiaren gastuak kitatzeko adina irabazten du	behar duena M E	behar duena baino gutxiago M E	behar duena baino askozaz gutxiago M E
Ama edo etxeakoak gaixotzen direnean, laguntza jasotzen dute gizarte-segurantzatik	gastu guztiak ordaintzen dizkiote M E	oinarrizko gastuak ordaintzen dizkiote M E	oso gastu gutxi ordaintzen dizkiote M E
Bazterketa-moduren bat edo beste jasan behar du	ez M E	bai, batzuetan M E	bai, askotan M E
Bere lan-eskubideak errespetatzen zaizkio	erabat M E	gutxi M E	ia bat ere ez M E
Bere herrian badaude pertsona guztien bizitza duina bermatzeko	behar direnak baino gehiago M E	behar direnak M E	behar direnak baino gutxiago M E

7 Nomina Tusu-ren bizimodua



Nomina Tusu naiz. Alarguna naiz eta 6 seme-alaba dauzkat. Gallo Hiraphen bizi naiz, Etiopiako herrixka batean, alegia. Herrian 100 etxe daude eta, oraintsu arte, denak beteta zeuden. Orain, ordea, auzo gehienek beste toki batzuetara jo dute, ur eta janari bila. Familiarik pobreenak geratu gara. Ez dugu ezer saltzekorik, ez baitugu ganadurik, eta aurtengo uzta oso-oso murrizta izan da.

Inguruko zuhaitz batzuen egurra ebakitzen dut eta herriko azokara eramaten dut, saltzera. Horrela lortzen dut diru-pittin bat, seme-alabentzako zerealak eta ura erosteko; hala ere, gero eta jende gehiagok saltzen du egurra, eta beti ez da erraza izaten erosle bat topatzea. Lehen, herritik gertu dagoen putzutik ateratzen genven ura, baina aurten lehor dago, eta ura edukitzeko modu bakarra erostea da.

Nire iritziz, niretzat eta nire seme-alabentzat bertan geratzea da onena. Horrela, eskolara joango dira, beti bezala, eta aukera bat izango dute etorkizunerako. Haien alde egin dezakedan onena da.

Zergatik joan da jendea Gallo Hiraphe-tik?

Zergatik geratu da Nomina?

Herritik joateak zer ondorio ekarriko luke Nominaren seme-alabentzat?

Eman dezagun Nominaren tokian zaudela, zer egingo zenuke familia aurrera ateratzeko?

Nominak uzta galdu zuen lehortearen eraginez, eta dirurik gabe geratu zen, zer gertatuko zitzaion herri aberats batean bizi izan balitz?

8 Nire iritzia



Ongi... Eztabaidatzeko garaia da.
Irakur itzazu ondoko esaldiak eta
Har ezazu jarrera!

- ☒ ados nago
- ☐ ez nago ados
- ☐ ez nago ziur

Lurra planetan badago ondasun
nahikorik pertsona guztiak
duinki bizi daitezten

☒ ☐ ☐

Herri aberatsek ez diete
laguntzen garatu gabeko herriei
pobreziatik irteten.

☒ ☐ ☐

Norbaitek bere jaioterrian
duinki bizitzerik ez duenean,
eskubidea du beste nonbaitera
joateko lan egitera.

☒ ☐ ☐

Gure herrian pertsona guztiak
aukera berberen jabe dira
bizimodu duina lortzeko.

☒ ☐ ☐

Euskal Herrian
ez dago pobrerik.

☒ ☐ ☐

Gobernuen betebeharra da
pertsona guztien osasuna eta
hezkuntza bermatzea.

☒ ☐ ☐

Munduan hainbat jende pobre
da, eskolara joan ez izanagatik.

☒ ☐ ☐

9 Joan gaitezen erroetara



Ondoko irudi eta testuek beren izenburuak galdu dituzte. Erabaki ezazu zein den testu eta irudi bakoitzari dagokion izenburua eta lot itzazu gezi baten bitartez. Munduan dagoen pobrezia-aren zergati nagusietako batzuk aurkituko dituzu.

B

HERRI POBREA K ZOR
INJUSTUPEAN ITOTA

A

MUNDUAK LAGUNTZATAN
BAINO 10 BIDER GEHIAGO
GASTATZEN DU ARMATAN

C

MILIOIKA NEKAZARI
POBREZIAN BIZI DIRA
MERKATU INJUSTUAREN
ERRUZ

E

HERRI ABERATSEK EZ
DUTE BEREN HITZA
BETETZEN POBREZIA-REKIN
AMAITZEKO

D


MUNDUAN BADAGO
ABERATASUN NAHIKORIK
PERTSONA GUZTIENTZAT,
BAINA HERRI ABERATSEK
METATZEN DUTE GEHIENA...

Izenburu horietatik abiatuz, egin zerrenda bat pobrezia-aren zergatiak jasoz, eta aurkez ezazu alternatiba bat bakoitzeko.


Pobrezia-aren Zergatiak



Herri afrikarren erdiak baino gehiagok herritarren mediku-sorospenean baino gehiago gastatzen dute kanpo-zorra ordaintzen.



Munduan giza laguntzan gastatzen den dolar bakoitzeko, herriek hamar bider gehiago sartzen dute aurrekontu militarretan, Nazio Batuen Elkarrekin 2005ean egindako Garapenerako txostenean jasotako datuen arabera.
Iturria: elmundo.es



Konponbidea

10 Zero pobrezia gaurdanik!



2000. urtean 189 herrik onartu zuten
Milurtearen
Garapen-Helburuak pobrezia erazteko
2015erako...
Baina aldaketak mantsoegi doaz...

Gobernuek hitza bete beharra daukate!
Horretarako, kanpaina bat abiatua da
munduan zehar, non zu bezalako milaka eta
milaka herritarrek parte hartzen duten.
Behean dituzu haien proposamenak. Irakur
eta konpara itzazu 9. jardueran zuk zeuk
egindako proposamenekin:

- Laguntza gehiago herrialde eta pertsona pobreenentzat.
- Merkataritza-lege injustuak aldatzea.
- Iparreko herrialde aberatsek nekazaritza-produktuen esportazioagatik dituzten laguntzak kentzea.
- Ziurtatzea pertsona guztiek dituztela ezinbesteko premiak aseta: elikadura, osasuna, ur edangarria, etab.
- Gutxien garatutako herrialdeei teknologiaz baliatzen laguntzea.
- Herri pobreen kanpo-zorra kentzea

Idatz ezazu esaldi bakar bat zure lagunei kontatzeko zer iritzi duzun munduko pobrezia-ri buruz.



Eta zuk zer
egin
dezakezu?

Informa zaitez eta parte hartu munduko politikari guztiak presionatzeko abiatu diren kanpainen, pobrezia-aren aurkako borrokan parte har dezaten.

Webb orriak bisitatu eta zure herrian edo hirian egiten diren ekintzen berri izan, edo internet bidez parte hartu:

- Zero Pobrezia izeneko kanpaina, estatu espainiarreko GKE-en Koordinakundearena dena: www.pobrezacero.org
- Aitzakiarik Gabe izeneko kanpaina, NBErena dena www.sinexcusas2015.org
- ODM-ei buruzko informazioa jaso, NBEren web orrian eta eskola-programan, Eskolako ZiberBusean: www.un.org/Pubs/CyberSchoolBus/spanish/



IRTEERA-PUNTUAK:

Mexiko, Mariaren herria, ez da Burkina Faso bezain pobrea; ordea, hainbat milioi mexikar pobrezia-egoeran bizi dira. Mariaren familia nekazaria da, baina oso lur gutxiren jabe da. Mariak estudiatzeari utzi behar izan dio lan egin eta familiari laguntza ematearren. Mariak 1.000 puntu dituela ekingo dio lasterketari.

GERALEKUAK:

3. Hirira iristean, aho zabalik geratu zara. Ez zenuen inoiz horrelakorik ikusi, hainbat jende eta etxetzar! Bat-batean konturatu zara poltsa falta zaizula, non dokumentuak eta diru apur bat gordetzen zenuen. Ez dakizu zer gertatu den... 300 puntu galtzen dituzu.
5. Arropa-denda batera sartu zara, non saltzaileak behar dituzten. Muturra okertu dute zu ikustean, indigenarik ez dutela hartzen esanez. 200 puntu galtzen dituzu eta bi lauki atzeratzen.
8. Mutil indigena batzuk ezagutu dituzu, merkatuan paketeak kargatzen lan egiten dutenak. Gauza bera egiten saiatzen zara, baina inork ez zaitu kontratatzen. Mutilak bakarrik nahi dituzte lan hori egiteko. 200 puntu galtzen dituzu eta irteeraraino atzeratzen.
10. Janari-denda batean lortu duzu lana. Soldata urria da, baina ezer ez baino gehiago da. 100 puntu irabazten dituzu.
14. Lana lortu duzu janari-denda batean, 12 orduko lana eskatu dizu nagusiak, astean 6 egunetan. Ordu asko diren arren, hartu beharra daukazu, bestela kalean jarriko baitzaituzte. 150 puntu irabazten dituzu eta 5 lauki atzeratzen.
17. Ikasteko gogo handia duzunez, ikastaro batean eman duzu izena, asteburuetarako. 200 puntu irabazten dituzu.
21. Alokairuan hartzeko moduko gela bat ikusi duzu, sukalde txikia eta komuna dituen. Zure jantzi indigenak antzematean, aurretik alokatuta dagoela esan dizu nagusiak. 200 puntu galtzen dituzu eta 15. laukiraino atzeratzen.
23. Bi neska indigena oso jatorrak ezagutu dituzu. Haiekin batera bizitzeko gonbita egin dizute. 200 puntu irabazten dituzu.
27. Gaixorik zaude eta medikuarengana jo duzu. Oso botika garestiak agindu dizkizu, eta ezin dituzu erosi. Gainera, inolako kontraturik ez duzunez, nagusiek, horretaz baliaturik, ez dizkizute ordaindu lan egin gabeko egunak. 300 puntu galtzen dituzu.
30. Ez dituzu zure herriko arropak janzen, ez eta ama-hizkuntza mintzatzen. Bazterketa jasan behar izan duzunez, lotsa zara indigena izateaz. 200 puntu galtzen dituzu eta 2 lauki atzeratzen.
34. Zure lagunak lan-eskubideei buruzko hitzaldira gonbidatu zaituzte. 200 puntu irabazten dituzu.
35. Amatok esan dizu aitatxo oso gaixorik dagoela, eta oso ebakuntza garestia egin behar diotela. Dirua aurreratzea eskatu diezu nagusiei, baina haren zati bat baino ez dizute eman. Daukazu diru guztia bidali diozu amari. 200 puntu galtzen dituzu eta 6 lauki atzeratzen.
37. Nagusiek esan dizute hilabete honetan oso gutxi irabazi dutela dendan, eta ez daukatela zuri ordaintzeko. Lanean jarraitzea eskatu dizute, hurrengo hilabetean ordaindu ahal izateko. 300 puntu galtzen dituzu eta lauki 1 atzeratzen.
41. Zu eta beste emakume indigena batzuk antolatu egin zarete zuen eskubideak defendatzeko. Kokoteraino zaudete hirian baztertuta eta zapalduta egoteaz. 300 puntu irabazten dituzu eta lauki bat aurreratzen.



IRTEERA-PUNTUAK:

Oautara oso herri pobre batean bizi da, baina hektarea bat lur dauka. Asko kostatzen zaio uzta biltzea. Emazteak etxean, alorretan eta azokan lan egiten du. Bere bi semeek eta alaba txikia lehen mailako eskolan ikasten dute. Oautarak 1.000 puntu dituela ekingo dio lasterketari.

GERALEKUAK:

3. Gaur, zure emazte Sanuk bi arroz-zaku saldu ditu azokan. 50 puntu irabazten dituzu.
5. Hazia erosi beharra daukazu. Nahikoa dirurik ez duzunez, kreditua eskatu behar duzu. 150 puntu galtzen dituzu eta 2 lauki atzeratzen.
8. Izurriteak uzta hondatu dizu. Berrirori hasi beharra dago. 200 puntu galtzen dituzu eta hasiera-punturaino atzeratzen.
10. Zure semeen eta alabaren eskola eta liburuak ordaindu behar dituzu. Ez duzu denetarako dirurik, ordea. Alabak ez du estudiantuko aurten. 200 puntu galtzen dituzu eta 2 lauki atzeratzen.
14. Arrozak ongariak behar ditu. Maileguan hartu behar duzu dirua haiek erosteko. 150 puntu galtzen dituzu.
17. Urteko lehen uzta prezio onean saltzea lortu duzu eta, zorrak kitatu ondoren, 76 euro geratu zaizkizu. 100 puntu irabazten dituzu.
21. Seme zaharrenak lehen mailako eskola amaitu du. Harro zaude harekin. 150 puntu irabazten dituzu.
23. Azken hilabeteetan ez du nahi beste euririk egin. Arrozaren kalitatea ez da hain ona. 150 puntu galtzen dituzu eta 5 lauki atzeratzen.
27. Paludismoak harrapatu zaitu arroz-alorretan hain ugari diren eltxoen erruz. Ezin duzu lanera joan bi astetan. 200 puntu galtzen dituzu eta 3 lauki atzeratzen.
30. Zu eta beste ekoizle batzuk kooperatiban batu zarete, baldintza hobeak lortu ahal izateko. Nazioarteko azokan zuen arrozaren prezioa hobetzea espero duzu. 150 puntu irabazten dituzu eta 2 lauki aurreratzen.
34. Seme gazteena gaixotu egin da, eta familia osoa beldurtuta dago oso. Dirua eskuratu behar duzu botikak erosteko. 100 puntu galtzen dituzu eta 4 lauki atzeratzen.
35. Sanuk ez du gaur arroz askorik saldu azokan. Urte-sasoi honetan jendeak ez du jada dirurik janaria erosteko. 100 puntu galtzen dituzu eta 4 lauki atzeratzen.
37. Arrozaren prezioa jaitsi egin da, herri aberatsek diru-laguntzak ematen dizkietelako bertako ekoizleei. Bigarren uztagatik eman dizuten dirua apenas da nahikoa zorrak kitatzeko. 200 puntu galtzen dituzu eta lauki bat atzeratzen.
41. Arroz-ekoizleek mobilizatzea erabaki duzue, herri aberatsei eskatzeko ez dezatela diru-laguntzarik eman arroza esportatzeko, laguntza horrek zuen arrozaren prezioa jaitsarazten baitute. 150 puntu irabazten dituzu eta lauki 1 aurreratzen.



IRTEERA-PUNTUAK:

Eva herri aberats batean bizi da. Batxilergoa bukatu eta lana topatu du autoak egiten dituen lantegi batean. Semeak eta alabak lehen mailako eskolan ikasten dute. Amak laguntzen dio umeak zaintzen. Evak 2.000 puntu dituela ekingo dio lasterketari.

GERALEKUAK:

3. Profesionalki hobetu nahi duzunez, administrazio-lanerako aurkeztu duzu zure burua enpresan. Lanpostua ukatu dizute, goi-mailako ikasketarik ez duzulako. 300 puntu galtzen dituzu.
5. Lantegiko soldata ez da nahikoa familiako premiak asetzeko. Hori dela eta, greba egin duzue, sindikatuarekin batera. Zuen lan-eskubideak babesten dituzte legeek. Azkenik, igoera txiki bat lortu duzue. 200 puntu irabazten dituzu.
8. Soldata jaso eta etxeko gastuen faktura ordaindu ondoren, ez daukazu diru nahikorik janaria erosteko. Amari eskatu behar diozu dirua, maileguz. 300 puntu galtzen dituzu eta hasiera-punturaino atzeratzen.
10. Ama gaixotu egin da, eta ezin ditu zure umeak zaindu astebetean. Hainbat egunetan huts egiterik ez duzunez, pertsona bat hartu behar duzu haiek zaintzeko, ordainduta, eta, horrela, zure soldataren laurdena galtzen duzu. 200 puntu galtzen dituzu eta 2 lauki atzeratzen.
14. Amak gaixotasun larria du. Probak egin behar dizkiote, ebakuntza bat eta hainbat egun eman ospitalean. Sendagile bikainei eta goi-teknologiako taldeei esker, ama sendatu egin da arazorik gabe. Gainera, Gizarte Segurantzak ordaindu ditu gastu guztiak. 300 puntu irabazten dituzu eta 2 lauki aurreratzen.
17. Arduradun-postua hartzeko aurkeztu duzu zure burua lantegian. Karguak hobekuntza profesionala eta soldata hobe dakartza. Azkenean, beste kide bati eman diote postua. Jakin duzunez, ugazabek ez dute emakumerik nahi arduradun-karguetan. 400 puntu galtzen dituzu eta 4 lauki atzeratzen.
21. Alabak hagineta mina dauka. Lana utzi beharra daukazu, dentistarengana eraman eta kontsulta ordaindu. 300 puntu galtzen dituzu.
23. Semeak eta alabak oso nota onak aterata gainditu dute ikasturtea. Biek joan nahi dute unibertsitatera, handi egiten direnean. 500 puntu irabazten dituzu.
27. Zure lan-kontratua amaitzeaz dago, urtebeterakoa baita. Berrir hartu zaituzte, baina 6 hilabeterako bakarrik oraingoan. Enpresako jabeek diote dirua galtzen ari direla, eta laster ezin izango dietela langile guztiei eutsi. 100 puntu galtzen dituzu eta 2 lauki atzeratzen.
30. Alokairuaren kontratua amaitzean, etxebizitzaren jabeak esan dizu, jarraitu nahi izanez gero, %25 gehiago ordaindu beharko duzula hilean. Zuretzat diru asko den arren, kontratua berriztatzea erabaki duzu, etxebizitza merkeagoa lortzea zaila izango baita. 200 puntu galtzen dituzu eta 4 lauki atzeratzen.
34. Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko hautagai modura aurkeztu duzu zure burua. Izapide luzeak egin eta gero, onartua izan zara. Urtetan kuota ordaindu beharko duzun arren, ez duzu alokairu gehiago bilatu behar izango. 200 puntu irabazten dituzu eta 2 lauki aurreratzen.
35. Enpresak ixtea erabaki du, eta langile guztiak kalean uztea. Mobilizatu egin zarete sindikatuaren laguntzarekin, eta indemnizazioa lortu duzue. Gainera, langabeziagatik ordaindu egingo dizute hainbat hilabetetan.
37. Lantegiak ateak itxi eta beste nonbaitera joatea erabaki du, soldata txikiagoak dauden herri batera. Oraingoan, lanik gabe geratu zara. 500 puntu irabazten dituzu eta 35. laukiraino atzeratzen.
41. Seme-alaben eskolak dirua hartu du estatutik, instalakuntzak berriztatzeko. Gimnasioa, laborategia eta informatika-gela eraikiko dituzte ikasleentzat. Zure seme-alaben formazioa hobetzeko aukera ematen du horrek. 300 puntu irabazten dituzu.



IRTEERA-PUNTUAK:

Bill oso herri aberatsean bizi da. Kotoi-ustiapen handi baten jabea da, eta oso makineria sofistikatua dauka nekazaritzarako. Emaztea politikaria da, eta oso soldata ona jasotzen du. Seme-alabak unibertsitatea amaitzen ari dira. Billek 5.000 puntu dituela ekingo dio lasterketari.

GERALEKUAK:

3. Azken belaunaldiko traktorea erosi duzu, pantaila digitala duena, lau gupil higiarazle eta aire-koltxoia. 200 puntu irabazten dituzu.
5. Alabak unibertsitateko ikasketak amaitu ditu. Ingeniari agronomoa da, eta alorren produkzioa hobetzen lagunduko dizu. 250 puntu irabazten dituzu.
8. Uzta izurriteak jo duenez, Gobernuak diru-laguntza emango dizu. 2.000 puntu irabazten dituzu eta 3 lauki aurreratzen.
10. Uzta izurriteak jo du. Aurtengo produkzioa galdu da, ia erabat. 2.000 puntu galtzen dituzu eta 8. laukiraino atzeratzen.
14. Emaztea politikaria da eta Estatuko Administrazioan lan egiten du. 3.000 hektarea baino gehiago dituzten nekazarienezako diru-laguntzak erdietsi ditu, esanaz ezen gastu handiak daukazuela. 500 puntu irabazten dituzu eta 2 lauki aurreratzen.
17. Hegoko herriak presionatzen ari dira zuen diru-laguntzak kentzeko. Diotenez, diru-laguntza horien erruz, ezin dute euren kotoia saldu. Zuen herriko politikari batzuek begi onez hartu dituzte presio horiek. 200 puntu galtzen dituzu eta 4 lauki atzeratzen.
21. GPS bat erosi duzu, kotoi-landareek behar duten ongarri-kantitate zehatza markatzen duena. Tresna horren bitartez, kotoia aurreztu ez ezik, haren kalitate bikaina lortuko duzu. 200 puntu irabazten dituzu.
23. Zure eskualdeko taldean integratu zara. Orain zuk eta zure kideek Gobernuari presionatuko diozue laguntza gehiago lortu eta zerga gutxiago ordaintzeko. 300 puntu irabazten dituzu.
27. Ahalegin handiak egin ondoren, zure semeak kotoia eskualde osoan garraiatzeko enpresa antolatzea lortu duzu. Orain diru gehiago irabaziko duzue, eta zure merkantzien garraioa askoz ere merkeagoa aterako zaizu. 300 puntu irabazten dituzu eta 4 lauki aurreratzen.
30. Semeak enpresa-ikasketak amaitu ditu, eta ez du lanik egin nahi. Ustiapenean laguntzea nahi zenuen, eta etsita zaude. 400 puntu galtzen dituzu eta 27. laukira atzeratzen.
34. Aurten ezin izan duzu zerga-ordainketa saihesterik. Aurreikusitako gabeko diru-kopurua ordaindu beharko duzu. 200 puntu galtzen dituzu eta 5 lauki atzeratzen.
35. Zure lagunik onena izendatu dute gobernu estataleko Nekazaritza-Saileko zuzendari. Agindu dizu ezen zure sektoreak hartuko dituela onurarik handienak. 400 puntu irabazten dituzu.
37. Kotoi-ekoizle Handien Elkartearen presioei esker, kotoia inportatzeko zergak handitu ditu zure herriak. Orain baldintza hobeak izango dituzue barne-merkatuan ere. 300 puntu irabazten dituzu.
41. Gobernuaren laguntzei esker, nazioarteko merkatuan lehiakor izatea lortu duzu, eta urteko produkzio osoa saldu duzu. 600 puntu irabazten dituzu.



Intermón Oxfam



Eva, Outara, Bill eta Mariak hainbat egoera lehen pertsonan bizitzeko aukera eskaintzen digute, baliabideak eta aukerak eskuratzeko ahalmenearekin lotuta. Koadernoak osatzen duten joko eta jardueretatik abiatuz, pobreziaz gogoeta egiteko aukera eta baliabideen banaketa ezberdina aztertuko dugu.

Lehen mailako hezkuntzako unitate didaktikoen bilduma

Bilduma hau Intermón Oxfam-ek duen **Herritartasun Globalerako Hezi izeneko** programaren zati da. Inguruko errealitatea hobeto ezagutu eta ulertzeko jarrerak eta baloreak sustatu nahi ditu ikasleen artean, horrela mundu justuago eta elkartasun gehiagokoa eraikitzen aktiboki parte hartzerik izan dezaten.

Lan-proposamen globala, malgua eta ikasleen premietara egokitua da honako hau. Koaderno hau haur-hezkuntzako ikasleentzat pentsatuta dago.



Otros títulos del mismo ciclo:

GAIA **Merkataritza justiziaz**
Jacquie-ren oparia

GAIA **Hezkuntza orain**
Hezkuntza, etorkizuna
berdintasunean

GAIA **Ingurumena eta garapena**
Noaga Sahel-en bizi da

GAIA **Armak kontrolpean**
Bakearen aldeko garrasi bat

GAIA **Hautzaroaren eskubideak**
Betoren auzune a

ISBN 84-8452-410-8



9 788484 524106

752274